

BALEIKE

196. ZENBAKIA EUKO BAT
2011ko OTSAILA

www.baleike.com



ITSAS HONDOA ESKURA

Lehen aldiz, itsas hondoa nolakoa den jakin dezakegu Aztik osatu duen mapa zehatzari esker. Zientzialari, arrantzale eta urpekarien ikuspuntua jakin nahi izan dugu.

ELKARRIZKETA: ZUBIMENDI AHIZPA SOINU-JOTZAILEAK



STOCK-OUTLET AZOKA

Otsailaren 12an eta 13an, Kantauri plazan. ZUMAIA

zumaiakarte@gmail.com



Zumaiako Udala



zumartian

Zumaiako merkataritza indarberritzeko plataforma

Nork osatzen du plataforma?

Plataforma honetako partaide dira hirugarren sektoreko enpresa guztiak eta Zumaian jarduerak kudeatzen dituzten udal teknikari guztiak.

Zer ekintza gauzatuko dira?

Zumaiari onurak ekarriko dizkion sinergiak lortuko dira, merkataritzan, turismoan, kulturean, euskararen, kirolean eta ingurumen arloan egingo diren ekintzen bidez.

Zein da estrategia?

Merkataritza indarberritzeko estrategiak, barrura eta kanpora begira ere sumatuko direnak, bai hirigintza eta azpiegiturei dagokienez, eta baita sektorearen dinamizazio eta sustapen mailan ere.

**HERRI ALDIZKARIA**

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkartea@baleike.com

Administrazio batzordea:

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Erredakzio taldea: Xabier Aizpurua, Imanol Azkue,

Ander Hormazuri, Ainara Lozano Lasa,

Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio,

Imanol Sesma, Jon Urbieto, eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez*Hizkuntz zuzenketa:* Imanol Azkue*Publizitatea*

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Euskarazko hedabideak, beste jauzi baterako ordua

Baleikek eta euskarazko beste 77 hedabidek argitaratutako editoriala

Euskarazko hedabideen historia jarraitu duenak, badaki azken 30 urteetako abaroen egin dela biderik emankorrena. Eta badaki denbora horretan emandako aurre-rapausoa itzela dela. Gaur egun 400.000tik gora biztanlek kontsumitzen ditu euskarazko hedabideak, 2008ko Eusko Jaurlaritzaren ikerketa baten arabera.

Komunikazioa da gure ardatza, inguratzen gaituen mundua nola ikusten dugun kontatzea, ikusmolde eta euskarri anitzez. Elkarren lehian eta elkarren osagarri. Hori da lokaletik globalera egiten dugun ekarpen nagusia, hizkuntza, euskaraz egiten duguna. Harro gaude egindako bide horrekin, pozik egiten dugunarekin, euskal kulturaren isla eta hauspo gara, eta gure euskaltasunetik munduaren ikuskera ugari eskaintzen ditugu. Albistea eta informazioaren haritik, entretenimendutik, gertukotik, sakonetik, zientziatik...

Baina ez da nahiko, ibilbide horretan sakondu behar dugu, orain artekoa hobetuz eta zabalduz. Hiztun komunitateak bere burua euskaraz islatua ikusteko eskubideaz ari gara, beharraz, nahiaz. Edozelako gizarte modernoren orainean, edozein kulturaren geroan, giltzarri da hedabideen zeregina. Ez da hau ukatuko duenik eta hala ebazten da behin eta berriz erakunde publiko eta alderdi politiko gehienek euskarari buruzko gogoeta eta plan estrategikoetan. Printzipio eta helburutan letra larriz aitortzen dute garrantzi hori, baina sostengu ekonomikoan ez, ez behintzat hedabide ez publikoei dagokienez.

Ezagun da EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrian oso egoera desberdinak bizi direla: Nafarroan eta Iparraldean erakundeek sostengua hutsala da; EAEn oso bestelakoa da, baina ez da nahikoa, aurrean ditugun erronkei begira eusteko adinakoa ez bederen.

Euskarazko hedabideok ohituta gaude zailtasunean jarduten, gure hizkuntzaren

izaera ez normalizatuak horretara bultzatzen gaitu, eta agian horrek ere laguntzen digu bizi dugun krisiari aurre egiten. Baina egoera gorria da eta hainbatetan larria. Hedabide ugari ari dira ixten munduan, hedabide historikoak, ospetsuak, gureen aldean handi eta indartsuak... Eta guk ere enbataren erdian dihardugu. Publizitatea behera, salmentak ere bai, diru-laguntzak urritzeko joeran... Noiz arte eutsi ahal izango diogu?

Bankuen, autoen, altzari eta elektratresnen salbamendu garaian, guk ere sostengu sendoagoa aldarrikatzen dugu. Maiz aurpegiatu zaigu diru publikotik bizi garela, bai euskal kultura, bai euskarazko hedabideak, konplexua sortzeraino ere bai agian. Orain, ostera, inoiz baino argiago ikusten da nola giltzarritzat jotzen diren esparru eta proiektuetan, erakunde publikoek dirutzak bideratzen dituzten, izan hauek eremu publiko edo pribatukoak.

Eta ekonomikoki ere sektore garrantzitsua da euskarazko hedabide ez publikoena: 600 langiletik gora ari gara bertan, hilero soldata etxera eramanez eta euskal gizartearen aberastasunean gure alea jarriz.

Azken 30 urteetan ibilbide oparoa egin dugu, baina bada ordua beste jauzi bat emateko. Gure konpromisoa hemen dago, egunerokoan ikusgai. Eta instituzioen konpromiso sendoagoa ere egunerokoan ikusi nahi dugu. Herri erakunde publikoen sostengu eta babes handiagoa aldarrikatzera gatoz.

Gure gizartearen garapena ezin delako porlana eta azpiegitura handien garapenari lotu. Adibidez, Euskal Y tren proiektuaren kilometro bakar batek, erakunde publikoetatik euskarazko hedabide ez publiko guztietara lau urtetan bideratzen dena balio du. Errepide, trenbide edo eraikuntza handien zati txiki batek gure etorkizuna berma dezake. Euskarazko komunikazioak merezi du tamainako apustua eta euskal kulturak ere bai.

“Santu gutxi ibiltzen gara eskean”

Entzun ditu baserritarrak koplak doinuak, eta zabaldu ditu baserriko ateak. Lagun taldea dauka parez pare, soinu, pandero eta dultzainaz hornituta. Musikari hitzak jartzen hasi dira koplariak. Ezagutu du haietako bat baserritarrak, aspaldian urtero azaltzen zaiolako. Baxakarte da.

TESTUA: AITOR MANTEROLA ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA



Makulu eta guzti, baina aurten ere bai?

Bai, bueltaren bat egingo dut.

Koplari?

Bai, bai. Eztarritik ondo nago, hanketan daukat hutsa.

Aurten koplak dioena errespetatu duzue, eta Santa Ageda bezperan atera zarete.

Bai. Beti ezin izaten da, jendea lanean delako. Batzuek protesta egiten dute bezperan joaten ez bagara, baina zer da hobe, ezer ez egitea eta ohitura galtzea? Nik nahiago joatea, nahiz eta beti bezperarekin ez tokatu.

Zenbat urtean oles egingen?

Asko, asko. Umetatik hasita... Ia urtero.

Santa Ageda, santaeskean... bada san ugari.

Bai, baina santu gutxi ibiltzen gara [barrezka].

Ba al duzu Santa Agedaren berririk?



Bularrak-eta ebaki zizkiotela badakit. Zerbait entzun izan genuen gaztetan, orain kontu horiek bukatuta badaude ere.

Koplak ere badio: “Santa Ageda bezpera dugu, Euskal Herriko eguna”. Erljio kutsuaz gain, beste esanahirik ere ba al du ohitura honek?

Ez dakit horixe. Martiri kontuak eta aipatzen direnez, erlijioari lotutako ohitura izango da. Ez dakit aurreko ohitura den, erlijioa bera ere nahikoa zaharra

da-eta guretzat. Guk, behintzat, erlijioari lotuta ikasi genuen. Bizpahiru lagun akolito bezala ateratzen ginen Artaditik, baserri baserri joateko, diru pixka bat biltzeko. Koplari bat izaten zen orduan, eta besteak kantari. Horrela hasi ginen gu.

Koplari ibiltzeaz aparte, Zumaiako taldean antolatzaile ere ibiltzen zara. Zer lan egiten dituzu?

Baten batek ibili behar izaten du eta... Jon Maiarekin, Joanito Dorronsororekin eta hauekin egoten naiz lehendabizi. Musika tresnaren kontuak ere lotzen ditut; iaz, adibidez, okurritu zitzaidan dultzaina ere ekarri behar genuela, doinu egokia delako urrutira entzuteko. Aurten ere etorriko da dultzaineroa. Musika aldetik osatuta gaude, bai.

Zer eskatu behar duzu aurten?

Ez gara dirua biltzera joaten. Santaeska da ate ondora joan, eta errespetuz kantatzea. Ondo esan behar

dira gauzak, eta etxean bilatzen ditugun denek kantatu behar izaten zaie.

Gertatu al zaizu zerbait eskatu eta ez ematea baserrikoek?

Bai, bai. Iaz, hamazazpi lagun bildu ginen, eta hamazortzi arrautza eskatu nituen baserri batean. Aterik ere ez ziguten ireki. Ez zuten arrautzarik edukiko. Ez da ohikoa izaten, ondo hartzen gaituzte-eta leku guztietan. Askizukoa espeziala izaten da, adibidez, hango txakolina apartekoa da.

Ibilbide bera egiten al duzue beti?

Bai. Askizuko jira egiten dugu goizean, nonbait bazkari pasa egin, eta arratsaldean Xarrondo aldera-eta jotzen dugu, Elorriaga ingurura. Gero, Zumaiako kaleetara etortzen gara, jendea gure ohitura erakustera.

Egunari gaua kateatzen ere amorratuak omen zarete.



Santaeskeko urte bat: bat daukat gogoan, eta ez onagatik, gainera. Oso gaizki ibili nintzen. Urrestillan izan zen, koplari eraman ninduten, eta hogeita lau orduz aritu nintzen, goizeko zazprietatik hurrengo eguneko goizeko zazprietara. Zisko eginda bukatu nuen, eztarritik eta leku guztietatik! Urola zaharrean bueltatu nintzen, balantzaka, dinbili-danbala.

Kopla kantari bat: askorekin ibili naiz. Ate ondoan oso bertsolari ona iaioa ez izatea gertatzen da. Badu bere xarma. Jon Maia oso ona da. Beste batzuek oso bertso teknikoak botatzen dituzte, eta beste zerbait behar da ate ondoan, jendearekin sartu behar da. Eskaleen egoera da azken batean. Aittola ere egokia zen, baita Patxi Etxeberria ere. Lehengoak oraingoak baino hobeto moldatzen ziren.

Jan-edanik estimatuena: txakolina. Eta jatekoetan, dena da gozoa.

Urtero eskatzen ari zaren zerbait: ezer berezirik ez. Urtea ondo pasatzeko, eta lotsagabe asko datozkiela ate ondora, eta horrelakoak.

Eutsiko al diogu ohiturari?

Ez dakit. Uste nuen baietz, baina moteldu egin delakoan nago. Zumaian jaitsita dago, behintzat. Gazteek ez dute parte hartzeko aukerarik, eta gogoia ere ez dakit. Eutsi beharko litzaioke.

Jaioteguna: 1940ko maiatzaren 24an.

Jaioterria: Zumaia.

Lanbidea: orain jubilatuta dago, eta lehen, txofertzan ibilia.

“Santaeskea da ate ondora joan, eta errespetuz kantatzea”

kalean eta Itziar inguruan ibili ziren. Oikiarrekin ere bat egin izan dugu. Esaten diegu iluntzean Zumaia etortzeko, jende gehiago biltze aldera, eta etortzen dira.

Zer esanahi dauka zuretzat egun horretan kantari ibiltzeak?

Bueno, ohiturari jarraipena ematea da. Txarrik ez duen ohitura da, nahiz eta eskera joan [barrezka]. Euskal Herriko kultura da.

Abisua ematen al diezue baserritarrei bertara zoaztela?

Ez, ez. Baserritarrentzat txarrena da ez dakitela zer egunetan azalduko garen: oraintxe ostiralean, hurrengoan asteazkenean... Alferrik zain egoten dira batzuetan.

Jan-edana ez zaizue falta izaten.

Ez, ez. Jateko nahikoa eta edateko gehiegi. Odolkiak, haragi egosia eta halakoak goizean, eta gozo gauzak bazkalondoan. ■

Bueno, bai. Partidua motza bada, badakigu luzatzen.

Zenbat lagun biltzen zarete?

Hamabi-hamahiru lagun biltzen gara, hamazazpira bitartean. Behar du horrenbeste, presentzia behar delako ate aurrean azaltzeko.

Lehen jende gehiago ibiltzen al zineten?

Bai. Guk geuk jai hartzen genuen lantegian egun horretan. Lehen beti otsailaren 4an ateratzen ginen. Zumaian bi talde ere atera izan ginen: batzuek Oikia aldera jo zuten, eta besteak





Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala
tel/Faxa: 943 14 31 20

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak
a3zumala@terra.es



LIBRURU DENDA

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALBERDI

dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261


ALBERDI

Dj July

Musika onena eskontzetan, kinton ospakizunetan eta era guztietako festetan



600 982 810
july_alberdi144@hotmail.com



ALGORRI TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



ANA
ETXeko ZAPIAK


Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157 anasetxekoziapiak@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA



D'Ana

Kantauri plaza, 6. behea tel. 943 117 406



OKINDEGIA
Arkiupe

Napusta, 2 - tel. 943 861 001
ZUMAIA

OGI-EDER




ARRUTI

Baltasar Etxabe 2./9
Zumaia 943016429



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



Itzua
French
euskara
inglisis
español
catalonian
suomi, bask
katala finnoa
frantses, anglis
italian, frantses
castellano finnois
inglis baski, katalan

Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25 tel./faxa 943 148 306
20749 Arroa bakun@euskalnet.net



Basodi
albaitaritza

Ribaitaria
Itzaki Garmendia

Basodi, 7. behea - tel. 943 143 310
www.basodi@basodi.clirivet.com
www.basodi.clirivet.com

Golbez: 11-13 / Arratsaldeko: 16-19:30 / Astelohen goizean eta larunbatean 8:30a
Larrialdetarako: 605 728 797 Etxez ebeko zerbitzua

BASUSTA
ERRETEGIA



Patxita Etxezarreta, 25 tel. 943 862 073

BATELA



ARRANDEGIA

Izustarri, 2-4 Tel. 943 860 750

BEDUA

ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMALEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369



Braky's

Okindegia Kafeategia

Izoga kalea, 2
20750 Zumala (Gipuzkoa)
TL: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

Santa Ageda bezpera degu

Orrua aldizkarian 1989an emandako sortatik hartutako kopla batzuk
Doinua: "Dios te Salbe ongi etorri"



*Hilaren bian Kandelario
bostean Santa Ageda
usadioa galdu ez dadin
kantari gatoz atera*

1.

Otsailaren lauean ginen
Santa Eskean atera
Siziliako martiriaren
izenean kantatzera

2.

Askizurantz goizean goizo
taldea ginen abitu
soinu txiki ta dultzainarekin
nahi baziguten aditu

3.

Baserri batetikan bestera
hura zen goiz atsegina!
Eta eztarria gozatutzeko
ardoa ta txakolina

4.

Koplatzen ziran ate aurrera
agertzen ziraden danak
nola nagusi, etxeoandre,
galai gazte eta damak

5.

Aranotikan Amezketara
ta handik Alikantera
nolako "martxa" ibili gendun
hortik kontuak atera

6.

Bazkalondoren ingurutako
baserritara bixita
Xarrondotikan Endañetara
Pikote eta Andika

7.

Arratsaldea igaro gendun
denok giro apartean
Santa Agedak bildu gaitzala
berriz datorren urtean



MAPETAN AGERTZEN EZ ZEN MUNDUA

Iruermita, Sanloentertza, Sanantonbarria, Pikea... Mapetan ageri ez diren lekuen izenak dira, itsasoan orientatzeko arrantzaleek mendez mende ikasi dituzten lehorreko markak. Itsasoan dena ur, ezin tokirik bereiztu, ezin maparik osatu. Gaur arte: teknologia lagun, itsas hondoaren mapa zehatza osatu du Aztik, eta urak ezkututzen zituen sekretuak agerian utzi ditu.

TESTUA: GORKA ZABALETA
ARGAZKIAK: JAVIER CARBALLO ETA GORKA ZABALETA

Gizakia gizaki denetik, mapak marrazten ditugu, lekuei izenak ematen dizkiegu, inguruan daukaguna ezagutu eta menperatzeko. Ibaiak, mendiak, basoak, herriak, bideak, hondartzak, portuak, mugak... Intereseko guztia kokatzen dugu mapetan. Horregatik dira hain baliotsuak. Lurrealde berrien konkistan, mapa zehatzena da baliabiderik eraginkorrena. Eta inguru berriak ezagutu eta menperatu ahala, munduaren mapa osatzen joan gara, eta bazter ezkutuena ere eskura jarri dugu.

Itsasoak lurrealde ezezagunetara eramán gaitu iraganen, baina ezer gutxi dakigu azpian gordetzen duenaz. Gurea bezalako herri arrantzaleek ikasi dute, mendez mende arrainen peskian, itsas hondoreen nolakotasuna urazaletik interpretatzen. Baina itsasoa dena ur, ezin tokirik bereiztu, ezin maparik

osatu. Lehorreko markak baliatu dituzte gure arrantzaleek arrantza-tokiak oroimenean gordetzeko: Iruekmita, Andikarraerresta, Santelmoertza... Mapetan ez dituzu aurkituko.

Eta urpekariak, urazalaren azpian gordetzen diren sekretuak bertatik bertara ikusteko irrikaz murgiltzen dira, baina hain da zabala itsasoa, hain zaigu arrotza...

Bada, zientziaren eskutik etorri da berrikuntza, beste behin. Itsas hondora begiratzeko leiho bat zabaldu berri dute zientzialariek: euskal kostaldeko itsas hondoreen mapa osatu du Aztik, tartean Zumaiari dagokion zatirena. Kostatik ehun metroko sakoneraraino, metroz metro, zehaztasun ikaragarriarekin. Itsaspeko munduaren lehen mapa. Balioko al du guk gehiago maitatzeko...



“UROLA IBAIAREN ANTZINAKO UBIDEA IKUS DAITEKE ITSAS HONDOAN”

Hiru urteko lanaren emaitza da Aztik osatu duen euskal kostaldeko itsas hondoaren mapa. Besteak beste, duela milaka urte Urola ibaia kilometro batzuk kanpoalderago itsasoratzen zela ikus daiteke, itsas hondoan baitago antzinako ubidearen arrastoa.

Aztiko Ozeanografia saileko buru da Adolfo Uriarte. Kostako herrietan hain estimatuak diren itsas mareen taulak ditu bulegoko mahaiaren gainean, bisitariarentzat opari. Gu, ordea, itsasbeherarik baxuenean ere urazpian ezkututzen denaz galdetzka joan gatzazkio: Aztik osatu berri duen itsas hondoren mapaz. “Orain arte ezezaguna zitzaigun lurralde baten mapa daukagu orain esku artean; estreinakoz, itsas hondoan dagoena ikus dezakegu”, bota du elkarrizketa hasi bezain pronto.

“Lan honek informazio asko eman digu”, jarraitu du. “Batetik, itsas hondoko erliebea nolakoa den ikusi ahal izan dugu, zehaztasun handiz. Lurraren bilakaera ikertzen dutenentzat leku ezin aproposagoa da itsas hondoa. Kontuan hartu lehorrean normalean haitzak lur geruza batez estalita egoten direla. Zumaiaiko labarretako kasua salbuespena da. Bada, itsas hondoan, eta zehazki Zumaiaiko marearteko zabalgunearen segidan, haitza erabat garbi ageri da olatuen lanari esker, eta oso ondo ikus daitezke geruzen tolesdurak eta haitzak jasandako bestelako prozesuak. Geologoentzat leku paregabea da”.

Eta hauxe da itsas hondoan egin duten aurkikuntza deigarrietakoa: gaur egungo ibai nagusien antzinako ubideen arrastoa. “Kontuan hartu behar da duela 20.000 urte itsasoaren maila ehun metro beherago zegoela. Kosta lerroa sei, zazpi edo zortzi kilometro urrunago zegoen, itsasoratzen zirela, eta horren lekuko dira itsas hondoan aurkitu ditugun antzinako ubideen arrastoa”. Paleokanalak deitzen zaie. “Esate baterako, Urumea ibaiaren paleokanala Santa Klara uhartearen aurrean dago, lehen ibaia Kontxako badiatik itsasoratzen zelako”.

Aztiren mapan oso ondo ikusten da Urola ibaiaren paleokanala, gaur egungo bokalearen aurrean, pixka bat mende-

“Kontuan hartu behar da duela 20.000 urte itsasoaren maila ehun metro beherago zegoela”

baldera. “Urola ibaiak duela 20.000 urte utzitako arrastoa ikus daiteke itsas hondoan, gutxienez 70 metroko sakoneraraino”. Eta bada bitxikeria bat ibai nagusi gehienetan errepikatzen dena, baita Urolaren kasuan ere: “Une jakin batean, mugimendu tektoniko baten ondorioz, hondoa ekialdetik pixka bat altxa egin zen, eta, inklinazioaren ondorioz, ibai gehienek bigarren ubide bat sortu zuten jatorrizkoaren mendebaldera. Bigarren paleokanal hori ere ederki ikus daiteke Urola ibaiaren kasuan”. Mugimendu hori noiz gertatu zen zehazteke dago oraindik, eta ondorioz ezin oraindik ziurtatu zerk eragin zuen.

Urolaren paleokanalez gain, antzinako beste ubide txikiago batzuk ere garbi ikusten dira Zumaia aurreko itsas hondoan. Andikaraerrekak, Oristorrekak edota Galarretarrekak utzitakoak izan daitezke, lasai asko. “Haiek ere gaur baino askoz aurrerago itsasoratzen ziren. Erreka hauek gaur egun amildegitik jauzi egin behar izaten dute bidaiaren azken urratsean: higitze lanetan itsasoa azkarragoa izan den seinale. Pentsa: azken 20.000 urteotan itsasoak sei edo zazpi kilometro jan dizkio lurrari. Gure arbasoak Ekaingo kobazuloan bizi ziren garaietan, kostaldea askoz urrutirago zegoen”.

Ibaiek duela milaka urte utzitako arrastoez gain, gaur egun itsasoaren azpian dauden antzinako marearteko zabalgunek aurkitu dituzte. “Gaur egun Algorritik Deba aldera ikus ditzakegun brankada horiek segida oso luzea dute ur azpian, eta, gainera, tarteka koska bat ageri da: garai batean



Itsas hondoa eskaneatzen

Europatik jasotako eskaera baten ondorioz heldu zion Aztik euskal kostaldeko itsas hondoa kartografia zehatza osatzeko proiektuari. Europako Habitats zuzentzarauak dio herrialde bakoitzak bere itsas naturgune garrantzitsuenak identifikatu behar dituela, gero babes eman ahal izateko. “Azken finean, naturgune garrantzitsuenak zein diren erabakitzeo aurrea ingurua bera ezagutu eta definitu behar da: itsas hondoa erliebea, haitza edo hondarra ote dagoen...”, azaldu du Uriartek. “Hori egin daiteke bideo kamera batekin urazpira sartuta, baina mapa bat egiteko ez da sistema egokia. Itsasontzietako zundek normalean seinale bakarra emititzen dute sakonera neurtzeko. Guk aldi bakoitzeko 256 seinale bidal ditzakeen zunda berezi bat erabili dugu itsas hondoa mapa osatzeko. Puntu bakoitzaren sakoneraz gain —erliebearen marrazkia lortzeko—, hondoa nolakoa den ere esaten digu: haitza den, hondarra, harriak, oldia ote dagoen...”.

Hiru urte behar izan dituzte Bizkaiko Cobarongo mugatik Bidasoa ibairainoko kosta lerroaren itsaspeko mapa osatzeko, ehun metroko sakoneraraino. “Itsasoa ehun bat egun egin ditugu itsasontziarekin aurrera eta atzera itsas hondoa *eskaneatzen*. Datu fidagarriak lortzeko, itsaso bare samarra behar genuen —metro eta erdiko olatutik behera—, eta hori gutxitan izaten dugu inguru hauetan. Baina azkenean zehaztasun handiko informazioa lortu dugu: itsas hondoa metro karratu bakoitzeko zundaren seinale bat daukagu gutxienez; baina sakonera txikiko guneetan, 25 seinalek emandako informazioa ere lortu dugu metro karratu bakoitzeko”. Penintsula osoan ez omen dago horrelako zehaztasuna eskaintzen duen beste lanik. “Espainiako Itsas Idazkaritzarekin hitzarmena sinatu dugu mapa hau 200 metro arteko sakoneraraino osatzeko, eta jadanik horretan ari gara. Espero dugu datorren urterako amaitzea”.

► UROLAREN PALEOKANALAK

Alboko mapan goitik behera ikusten den arrasto luze eta lodiena Urola ibaiarena da. Ezkerrean bigarren kanal bat osatu zuen. Ezkerreago ikusten diren arrasto txikiagoak, errekenak dira.





hor amildegia egon zen seinale”. Izan ere, azken 20.000 urte hauetan itsasoaren maila ez da beti abiadura berean igo. Itsasoa urtetik urtera proportzio berean igotzen bada, orduan haitzean eragingo duen higadura beti neurri berekoa izango da, eta zuzengune bat sortuko da. Baina itsasoaren maila ohi baino azkarrago igotzen hasten bada, orduan koska bat sortuko da haitzean”. Aztik egindako lanari esker, lau edo bost eskailera maila aurkitu dituzte gaur egun ur azpian dauden brankadetan, antzinako lauzpabost labarren arrastoak. “Horrek esan nahi azken 20.000 urte hauetan itsasoaren maila ohi baino azkarrago igo dela lauzpabost aldiz. Oraindik ez dakigu kolpe horiek noiz gertatu ziren, datak zehazteko daude”.

Horiek dira Zumaia inguruko itsas hondoa aurkitu dituzten arrasto interesgarrienak. Baina Marianton puntaren aurrean bada oraindik azalpenik ez duen egitura bitxi bat: “Brankada horietan badago egituraren bat nahikoa bitxia. Oraindik aztertu egin behar dugu naturala ote den edo ez. Brandakaren lerroan bat-batean hutsune moduko bat ikusten da, lauki formarekin. Barruan hiru haitz punta nabarmentzen dira hondar artetik. Ziurrenik, higaduraren ondorioz sortu da forma bitxi hori, baina aztertzea merezi du”.

Jasotako informazio guztia aztertzen ari dira pixkanaka. Uriartek aitortzen du dena egiten zaiela deigarri. “Mundu berri bat deskubritzea bezala izan da. Hondoan dagoena ikusten hasi gara. Onerako zein txarrerako, itsas hondoa ez dugu ikusi orain arte, eta askotan zaborregi modura erabili dugu. Lan honetan oso garbi ikusten dira hondakinak isurtzeko erabili izan diren guneak (Bilboko portua, Jaizkibel...). Hori dena oso ondo ikusten da. Hozkailuak ere ikusi ditugu...”.

Erabilerak

Itsas hondoa nolakoa den ezagutzeko aukera eskaintzeaz gain, mapak beste hamaika erabilera izan ditzake. “Zertarako erabil daitekeen mapa hori? Edozertarako. Hasteko, intereseko naturguneak marraztu ahal izateko oinarritzko kartografia lortu dugu. Dagoeneko horretan ari gara, leku bakoitzean

“Mundu berri bat deskubritzea bezala izan da. Hondoan dagoena ikusten hasi gara”

Europako Habitats zuzentzarauak itsas hondoko naturguneak identifikatzeko eskatzen duelako jarri zuten martxan proiektua, hain zuzen ere.

“Hortik aurrera, mila erabilera izan ditzakete mapa hauek. Adibidez, azpiegituretarako kokaleku egokiena aurkitzeko: ur zikinak itsasora botatzeko urazpiko hustubideak, gasa ustiatzeko plataformak, haize-errotak, olatuen energia baliatzeko azpiegiturek... Surflariak badakite, olatu berbera izanik ere, ezberdin lehertzen dela han edo hemen, hondoa arabera. Beraz, olatuen energia baliatu nahi badugu argindarra sortzeko, ezinbestekoa zaigu jakitea non sortzen den energia gehien. Azken finean, edozer erabakitzeko itsas hondoa nolakotasuna ezagutu behar da”.

Arrantzarako ere oso baliagarria izango dela uste du Uriartek, “orain informazio askoz zehatzagoa izango baitute”. Erreskateetarako ere bai. “Adibidez, gure mapak aztertu zituzten *Motxo* harraldetik itsasora ateratzeko leku aproposik ba ote zegoen ikusteko. Itsasoa hondoratutako itsasontzi zaharren kokaleku zehatzak ere lortu ditugu lan honi esker. Gure itsas hondoa dagoen ondarea izugarria da. Azken finean, gaur egun haurdunaldietan egiten diren zehaztasun handiko ekografia moduko bat egin diogu itsas hondoi”.

zer espezie bizi diren zehazten. Ikusi beharko dugu non dagoen bioaniztasun handiena, zeintzuk diren ondoen kontserbatu direnak eta zeintzuk merezi duten berreskuratzea. Badakigu itsasoa leku batzuk besteak baino produktiboagoak direla. Esate baterako, *gelidium* oldiz osatutako zelaiak oso aberatsak dira, arrainkumeen babesleku direlako, eta espezie askorentzat janari toki aproposak. Badakigu gune horiek babestu egin behar direla”.



Adolfo Uriarte,
Aztiko
ozeanografoa.




Itsasoaren mailak gora jarraitzen badu?

Zientzialariek diote klima aldaketaren eraginez kontinentetako izotza urtzen ari dela eta, ondorioz, itsasoaren maila ohi baino azkarrago igoko dela. Zenbait kalkuluren arabera, mende amaierarako metro bat ere egin dezake gora. Hori horrela gertatzen bada, garbi dago kostaldean dauden herri guztiak, Zumaia barne, arazo larri baten aurrean daudela. Arazoari aurre nola egin aztertzen ari dira Aztin.

“Esan dugu azken 20.000 urteetan inguru hauetan bizi izan direnek ezagutu dituztela itsasoaren igoera handiak. Frantziako iparraldeko kostan, duela milaka urte gizakia bizi izandako kobazuloak aurkitu dituzte itsas hondoan”. Beraz, ez da fenomeno berria. Baina ondorioak sekula ez bezalakoak izango lirateke. “Lehen ez bezala, gizakiok kostaldea erabat okupatu dugu, hiriak eta azpiegiturak urertzean eraiki ditugu. Esate baterako, Urola gainezka egiteko zorian ikusten dugu urtero itsasgora bizienetan. Itsasoaren maila metro bat igoko balitz, uholdeak nahi baino sarriago izango genituzke”. Hondartzen etorkizuna ere jokoan dago. “Gipuzkoako hondartza gehienek horma bat dute atzealdean, ez dute elikatuko dituen dunarik. Kalkulua egin da itsasoaren maila igotzen den metro bakoitzeko hondartzak ehun metro egingo dutela atzera”. Horrek esan nahi du Itzurun ia erabat desagertuko litzatekeela...

Arazoari aurre egiteko, funtsean, hiru aukera planteatzen dituzte zientzialariek. “Batetik, kostaldea babesteko azpiegiturak eraikitzea, Holandan egin duten bezala: dikeak eta beste. Bigarrenik, itsasoa gainera datorkigun neurrian guk atzera egitea, pixkanaka herriak gorago eraikitzea. Estatu Batuetako zenbait lekutan erabaki hori hartu dute. Hirugarrenik, azpiegitura bigunak erabiliz, itsasoaren igoera oztopatzea. Adibidez, itsasoaren maila igotzen den heinean hondartzarena ere igotzea hondarra pilatuta”.

Duela lau urtetik Aztik mareografo propioa du Pasaiako badian. Tresna horri esker, itsasoaren maila urtetik urtera aldatzen ari ote den aztertzeke aukera dute. “Oraindik goizegi da ondorioak ateratzeko. Gutxienez hamar urte beharoko ditugu nahikoa datu izateko. Orain arte Santanderko eta Las Palmasko mareografoen datuak erabili ditugu, eta haien arabera urtean hiru milimetro ari da igotzen itsasoaren maila. Orain arte, Pasaiako aparailuaren datuak ez dira hiru milimetrora iristen”.



▲ MAPAK ARGITARATZEN

Oraingoz Donostiako eta Bilboko itsas hondooaren mapak argitaratu ditu Aztik. Hurrengoa zein izango den erabakitzeke, boto sistema jarri dute martxan www.azti.es webgunean. Oraingoz Hondarriak dauka boto gehien.

EGOKI



Erloju eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787

ekin
Elektronika, S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097
ekinsi@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet





Erribera, 8 tel. 943 861 694



ERNTO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045



ERROTA
OPIL-OKINDEGIA
SANTILLO AUZOA, 32
20750 ZUMALA
T.F: 943860000
943860612
FAX: 943860977
errota@errota-okindegia.com

NORTASUN-AGIRIENTZAKO ARGAZKIAK

10 Minutuan



ERTZ informatika
Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

FARMA ZUMAILA
Parafarmazia • Belar-denda
Tel. 943 865 323

PRODUKTUAK


- Ume eta haurrentzat, dietetikoak, kosmetikoak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dietista, Naturapala, Indicologia, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutikoak, Kiroletzako, Lasatzaileak, Estresaren, Artxitektaren, Buruko minen, Zirkulazio arazoan... kontrakoak), Akupuntura: horatzekin eta horatzik gabe.

BASADI KALEA, 1 - BEHEA - ZUMAILA

Galdona



burdindegia

Mendaro mannela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



Garoa
kafetegia

Txomin Agirre kaia Tel. 943862181



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA

Era gutxietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabilioia tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617



GOIKO TABERNA

Erribera, 9 tel. 943 861 391

GOFI
Gazte Surf

Baltasar Etxabe, z.g.
tel. 943 860 959

SPOT
SURF DENDA


Ortega y Gasset, 2
tel. 943 860 768

OUTLET

%50
%60
%70

Aita Mari
(postetxearen aurrean)

Gure-Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumala
Tel.: 943 86 09 70

English School

Harvest

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

API

Ibaigain
inmobiliaria

Ricardo Azkue
API 309

Txomin Agirre 4, behea
tel. 943 862 651
faxa 943862748

riazcue@euskalnet.net

“HOGEI METROTIK BEHERA BADIRUDI ILARGIAN ZAUDELA”




Olarrusub elkarteak biltzen ditu 2003tik herriko urpekari gehienak. Joserra Zubia, Ander Unanue eta Aitor Leiza dira haietako hiru. Hirurak ere urpeko arrantzan hasi ziren, baina jakin minak gehiago nahi. “Arrantzara bazoaz, gehienez hamar metroko sakoneran ibiliko zara, norbere biriken gaitasunaren arabera. Hortik behera dagoena eza-gutzeko grinarekin hasi ginen sakonera handiagoan murgiltzen, oxigeno botilekin. Eta konturatzeko zara beste mundu bat daukagula etxe hondoan. Espazioan ibiltzea bezala da, grabitatearen pisurik ez dago. Lasaitasuna sentitzen da”.

Gehienez 20 metroko sakoneraraino murgiltzen dira, gutxi baitute hortik behera jaisteko titulua. “Dena den, Zumaia inguruan askoz gehiago jaiste ez du merezi. Jaizkibelen, esate baterako, segituan jaisten zara 20 metrotik behera, malda handia dagoelako. Baina hemen ez. Gure itsas hondoa oso etzana da, brankadak dira gehien bat, eta oso urrutira joan behar da 30 metroko sakoneran ibiltzeko. Algorri parean, asko jota ere, 15 metro harrapatuko dituzu. Aztiren mapan ikusten da brankadak oso luzeak direla”.

20 metrotik behera paisaia erabat aldatzen omen da. “20 metrotik behera gehiena haitza da, hondarrarekin nahastuta. Belarrik ez dago. Badirudi Ilargian zaudela. Kolore guztiak joan egiten dira, galdu egiten dira. Horregatik urpekariek linternak eramaten dituzte, koloreak ikusi ahal izateko. Argi artifiziala sartu behar da”.

“Koska” asko dituen hondoa omen da egokiena murgiltzeko. “Dena lau den lekuan normalean ezer gutxi topa daiteke. Hori da orain arte guk erabili dugun erreferentzia lekuak aukeratzeko. Ontziaren zundak erakusten dizu itsas hondoaren erliebea: koska asko topatzen dituen tokian, aingura bota eta han murgiltzen gara. Gero, noski, leku klasikoak daude, esperientziak erakutsita ahoz aho ikasi direnak. Baina Aztik ateratako mapa horrek dakarren informazioa maila ez dugu sekula izan”.





Mazoparri

Inguruan urpekaritza egiteko leku onenetakoa Mazoparri omen da, Getariako San Anton mendia aldean. “Mazoparri oso leku ona da, batez ere babesean gelditzen delako. Portu naturala da. Bestela, Zarautzen Mollarri aldean, Zarautz eta Getaria artean, Kaminoazpiko haitzetan ere bai, Mutrikun Alkolean ibili izan gara... Algorri sar zaitezke eta itsaso onarekin gozatu egingo duzu, baina gure kosta zatia oso dago itsasoaren menpe eta egun gutxi izaten dira murgiltzeko onak. Urtean 20 bat aldiz sartuko gara asko jota”.

Getaria aldean egindako murgilaldian “oso gauza politak” ikusi dituzte: “Zapua, otarrainak... Otarraina azala aldatu berria ere ikusi genuen. Espezie aniztasun handia dago. Agian Getariako portua bertan dagoelako eta itsas hondora karnata asko iristen delako... Eta Getariako portutik murgildu izan garenean, han bertan olagarroak, andarrikak eta gomexak ikusi izan ditugu. Handienak, gainera, beti gauez”.

Urpekari gehienak ur azpian paseatzera eta arrain handiak ikusteko ilusioarekin murgiltzen dira. Beste batzuek, berriz, aurkikuntza txikiakin gozatzen dute. Aitor Leizaren kasua da: “Leku bakoitzak bere berezitasunak dauka. Inpernupe eta Parolpe inguruan ibili izan naiz, esate baterako. Ni neu gauza txikien atzetik ibiltzen naiz. Hamar milimetroko animalia txikiak. Adibidez, badaude izkira batzuk anemonetan bizi direnak; beste batzuk ostarrenen arantzetan bizi direnak”.






2

5

4

10

ZUMAIAKO ITSAS HONDOAREN MAPA



GEOLOGIA

1. Urolaren paleokanalak

Duela 20.000 urte itsas maila ehun metro beherago zegoen, kosta lerroa zazpi bat kilometro aurrerago, itsasaldera. Urola ibaiaren ubide zaharra ederki ikus daiteke itsas hondooan, 70 metroko sakoneraraino. Gainera, bigarren ubide bat du mendebaldera.

2. Erreken paleokanalak

Urola ibaiaren antzinako ubideetatik mendebaldera, Andikaraerrekek, Oristoerrekek edota Galarretaerrekek utzitako arrastoak ikus daitezke.

3. Antzinako marearteko zabalgunekak

Garai batean marearteko zabalgunekak izandakoak ere ikusten dira itsas hondooan. Brankada luzeetan lauzpabost koska identifikatu dituzte zientzialariek: antzinako amildegien arrastoak dira. Itsasoa ohi baino azkarrago igo zen garaietan sortu ziren koska horiek.

4. Egitura bitxia

Marianton puntaren parean, zulo bat dago brankadaren erdian. Lauki itxura du eta erdian hiru haitz punta nabarmetzen dira. Zientzialariek bitxia iruditu zaie eta oraindik ez dakite zer ote den.

ARRANTZA

5. Iruermita

Mendizorrotzek eta San Antonek osatzen duten lerroa alde batetik (ekialdetik mendebaldera datorrena) eta San Lorente, Arridokietak eta San Telmok osatzen dutena bestetik (lehorretik itsaso aldera). Gurutzatzen diren puntuari Iruermita deitzen diote arrantzaleek. Zumaiaiko arrantza toki ezagunenetakoa da, txibitarako, adibidez. Aztiren maparen gainean jarrita ikus daiteke bokaleko hondarra amaitu eta haitza hasten den lekuan dagoela, eta Urolaren paleokanalaren barrualdeko muturraren gainean.

6. Pikea

Zumaiarren arrantza toki ezaguna hau ere. Bokaletik irten eta iparralderantz hartuta. Izustarri pasa eta "gora", Getaria aldera.

7. Haitzak

Arrantzaleek ederki dakite itsas hondotik nabarmetzen diren haitzak oso egokiak direla arrantzarako. Panekarria, esate baterako. Non dauden ez dute zabaltzerik nahi, baina Aztiren maparekin errazagoa izango da aurrerantzean leku berezi horiek aurkitzea.

8. Lehorreko erreferentziak

Itsasotik lehorrean ikusten diren erreferentziak erabili izan dituzte arrantzaleek itsasoan orientatzeko eta arrantza tokiak markatzeko: tontorrak (Izarraitz), baserriak (Andikara, Santa Klara), ermitak (San Telmo, Arridokieta, San Lorente), edota bestelako eraikinak (Parola).

URPEKARITZA

9. Mazoparri

Getariako San Anton mendia erdialdean gelditzen den harraldeari deitzen zaio Mazoparri. Babesean gelditzen delako dute gogoko urpekariek. Gainera, Getariako portua ondoan duenez, jatekoak erakarrita, espezie asko biltzen omen dira paraje hartan.

10. Alkolea

Mutriku aldean dago. Urpekaritzarako leku egokia hau ere. Zarauzko Mollarrin, Kaminerozpian, Zumaiaiko Parolpean, Inpernupen edota Algorrin ere ibiltzen dira urpekarriak.

“PERRETXIKOTARAKO LEKU EZKUTUAK BEZALA, ARRANTZAKOAK ERE GORDE EGITEN DIRA”

GPSa iritsi aurretik, itsasoan orientatzeko eta arrantza toki egokiak markatzeko lehorreko erreferentziak erabiltzen zituzten gure arrantzaleek. Iruermita, Pikea edota Santaklaraertza, mapetan agertzen ez diren lekuak dira. Gaur egun gutxi batzuek ezagutzen dituzte.



“Zaharren bat edo badago GPSa erabiltzen ez dakiena, baina bestela denok GPSa erabiltzen dugu gaur egun. Batez ere segurtasuna ematen dizu, lainoa sartzen denerako. Lehorreko erreferentziarik ez daukazunean, GPSarekin ez daukazu arazorik nahi duzun punturaino joateko. Lehengo orientatzeko modu haiek galtuta daude”. Arbustain Motor Elkarteak kide dira Jose Ramon Elosua eta Juan Ramon Larrañaga. Biek ala biek, etxean jaso dute arrantzarako tradizioa. “Zaharrez aparte, ibiltzen garenon artean gutxi ezagutzen ditugu lehengo moduak, etxean jaso ditugulako; baina, bestela, gaur egun, gehienek ez dituzte ezagutzen. Jende berri asko dago, sekula ibili ez dena, amua pegatzen ere ez dakiena”.

Urazalaren maparik ezin egin, eta GPSrik ez zegoenean nola orientatzen ziren, bada, arrantzaleak? Lehorreko erreferentziak edo markak baliatuta. “Esate baterako, Orioko Mendizorrotzek eta Getariako parolak osatzen duten lerroak bereizten dizkigu *kanpoa* eta *barrua*. Marratik kostaldera

“Aztiren mapan informazio asko dago interpretatzen dakienarentzat. Informazio gehiegi...”

izango da barrua, itsasaldera izango da kanpoa. Marra hori oso oinarritzkoa da, askotan erabiltzen den erreferentzia”. Zumaiako bokaletik irten eta Deba aldera joanez gero, mendebaldera, *behera* joan direla esango dute. Getaria aldera berriz, *gora*. Eta gero, itsasotik lehorera begira jarrita, hainbat puntu erabiltzen dira erreferentziatzat: baserriak, tontorrak, baselizak... “Adibidez, Andikararresta, Pikoteko puntak Andikara baserriak ezkututzen

dituen puntua; edo Izarraitzeko tontorra Santa Klararekin lerroan...”. Halako erreferentziak erabiltzen zituzten lehen arrantza-tokiak markatzeko.

Zumaian zein dira arrantza toki klasikoena?

Bat, gehien ezagutzen dena, Iruermita.

Zergatik deitzen zaio horrela?

San Lorente, Andre Mari eta San Telmo lerrokatzen diren puntua delako erreferentziatoko bat; bestea, itsasoan barrurago edo kanpoalderago markatuko dizuna, Getariako parolak Mendizorrotzekin bat egiten duenean. Bi lerro horiek gurutzatzen diren puntua da Iruermita.

Eta zergatik da arrantzarako leku ona?

Haitza han hasten delako. Zumaiako bokalean dena hondarra da. Debaldera hartuta haitza hasten den lekua da Iruermita.



Jose Ramon Elosua eta Juan Ramon Larrañaga.

Iruermitaz gain, ba al dago beste arrantza leku ezagunik?

Pikea. Kasu honetan, bokaletik iparraldera irteten da, Getaria aldera. Hor ere haitza dago hondoan. Izustarriko punta pasa eta hor haitzak koska handi samarra egiten du beherantz. Gutxi gorabehera, bi horiek dira leku ohikoenak.

Eta hortik aurrera, norberak bere leku ezkutuak izango ditu, ezta?

Bai, arrantzarako puntu zehatzak bakoitzak bereak ditu. Perretxikotarako leku ezkutuak bezala, arrantzakoak ere gorde egiten dira, ez dira zabaltzen. Etxean jasotakoak izaten dira, belaualdiz belaualdi. Seguru bat baino gehiago hil dela bere ezkutuko lekua inori esan gabe...

Panekarria, esate baterako?

Adibidez. Sekula ez dugu zabalduko non dagoen zehazki. Ondotarako txoko berezi hori zabaltzen ez den bezala... Hori bai, panekarekin gertatzen dena da haitz gogorrak behar dituela, eta nahastuak. Mapa hau irakurtzen duenak ikusiko du non dauden gorabehera handiak. Baina, perretxikoen aldean, pentsatu behar da arraina batera eta bestera dabilela, eta garaiaren arabera edozein lekutan harrapa daiteke. Leku jakin horietan beti seguruago, baina arraina migrazioan dagoenean edozein lekutan topa daiteke. Txibia bezala. Begiaundia datorrenean, hura ez da Iruermitan zain egoten. Hura ez da perretxikoa.

Beraz, hondoan nolakoa den, arrantza mota ere halakoa izango da, ezta?

Hondoaren nolakotasunak baldintzatzen du arrantza. Barbarinak nahi badituzu, alferrik ibiliko zara haitzean, hura hondarrean egoten da eta. Leguauarekin berdin. Kabrak eta panekak nahi badituzu, haiek haitzean egoten dira. Haizeak

Zenbait arrantza tokiren izenak

Zumaia, izena eta izana liburuan hainbat arrantza-tokiren izenak jaso zituen Imanol Azkuek. Hona hemen liburuko pasarte bat:



“Paroletik irten eta gora edo behera hartuta, zer harrapatu nahi, zumaiarrek arrantza-toki ugari dauzkate. Horiek izendatzeko, gehienetan itsasotik lehorrean ikusten diren markak hartzen dira kontuan. Batzuetan, baserrien izenak izaten dira: Andikarako baxua, Andikarabea, Andikaragoia, Andikaraerresta eta Santaklaraertza, adibidez; beste batzuetan, ermitak edo eraikin erlijiosoa izaten dira, gainera daudenez erraz ikusten baitira: Eleizertza, Andremariertza, Parrokiertza, Sanloentertza, Sanloente barrua, Santelmoertza...; beste batzuetan, gizakiak eraikitako beste batzuk ere hartzen dira erreferentziatza, itsasotik erraz ikusten direlako, are gehiago kolore deigarria badute (adibidez, Parola: Parolertza); mendiak edo hondartzak ere bai, adibidez, Eskuadraertza (Orroaga inguruko mendi batek eskuadra itxura daukalako), San Anton-Mendizorrotz (Getariako eta Orioko mendiak, hurrenez hurren), Sanantonbarrua, Sanantonkanpoa...”

▼ LEHORREKO ERREFERENTZIAK

Tontorrak, ermitak, baserriak... Lehorreko erreferentziak erabili izan dituzte arrantzaleek itsasoan orientatzeko.



Idoia
 Moda dena
 Andregaitan espezializatirik

Julio Beobide, 2 behea Tel. 943 86 03 01
 idoiazumaia@gmail.com

Jhinza

ilarzi

Alai auzategia, 2
 Tel. 943 24 50 20

IRIONDO JATETXEA

Txikiardi
 auzoa
 Tel.
 943861390
 675715017

*Gure espezialitatea:
 arrainak eta barajia parvillan*

IRUITZ

Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 860 760

**ITSASKI
 SUPERMERKATUA**

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

Itzurun, S.L.
 Aroztegia

Ateak, leihoak, tarmak, armairu erprotatuk...

Itzurun Zuhaitzidea, 2 behea
 Tel. / Fax: 943 86 15 65

**ORRAZTEGI
 ZUMAI A**

943 862 083

KABI Patisia Etxezarreta, 15
 943 117 427

TABERNA

JUARISTI
 jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
 Eguneko menua
 Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943 861 853

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
 Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
 PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari

Upela plaza, 8
 tel. 943 862 517

Kresala
 Taberna

Julio beobide 3, tel. 943 019 869

kuttun
 lentzeria

erribera kalea tel. 943117936

Larraitz ile-apaindegia
 Zumaia

Basadi auzategia 5 behea
 Zumaia
 tel.: 943 14 30 41

malaur

MAITE
 ILEAPAINDEGIA

Amaiko plaza, 2 tel. 943 143 276

nondik jotzen duen ere, arrantzara leku batera edo bestera joaten gara, haizearen kontra brankaz ez ibiltze aldera. Eta gero garaian arabera ere aldatzen da arrantza. Adibidez, udaberri aldera,, berdelaren garaia da. Lehen txitxarroa etortzen zen harekin batera eta negura arte hemen gelditzen zen. Orain zeharo galduta dago txitxarroa.

Txibiekin berdin. Berdelaren atzetik, begiaundiak. Apirilean hasten dira pasatzen eta urri-azaro aldera arte hemen izaten dira. Bertako txibia, berriz, txikiak direnean bokalean egoten dira, hondarrean. Koskortzen diren heinean zabalitzen dira haitzera. Hauek urte osoan egoten dira. Begiaundia, berriz migratzailea da, berdela bezala.

Eta nola dakizue zuek hondoa nolakoa den?

Hondoa nolakoa den, haitza edo hondarra dagoen, lehen jakiten zen zaharrek emandako erreferentziekin. Mendez mende esperientziaren bidetik osatzen joan den informazioa da, azken finean. “Hemendik aurrera haitza dago, hemendik atzera hondarra”. Gaur zunda elektronikoaren informazioa irakurtzen dakienak ez dauka arazorik, sakoneraz gain hondoa hondarra edo haitza dagoen esaten dizu eta. Azkenean, soinuaren oihartzuna da: haitzean errebote handiagoa dauka hondarrean baino. Hori markatuta agertzen da: marra lodiak haitza adierazten du, mehetzen denean hondarra.

Nolakoa da, oro har, gure itsas hondoa?

Gure itsas hondoa etzan samarra da, baina badauzka koskak. Mapan ikusten diren brankadetan, bizpahiru metroko koskak ere badaude. Kanporago, 78 metroko sakoneratik 90era oso tarte txikian jaisten da. Inguru horretan badaude halako haitz edo tontor batzuk. Horiek oso leku egokiak dira arraintzat. Arraina, azkenean, egoten da ur asko pasatzen den tokian, igoerak dauzkan tokian, eta hori koska handia dagoen lekuetan gertatzen da. Han biltzen dira, janaria etorri zain.

Beraz, Aztiren mapa gabe ere, batzuek, behintzat, ondo ezagutzen dituzue itsas hondoaren ezaugarriak.

Mapa honetan ikusi gabe ere nik, behintzat, [Juan Ramon Larrañaga] banekien hemen kanal moduko hau zegoela. Kanalaren gainaldetik hondora bost metroko jauzia dago; hondoa 45 metrora dago. Eskuinekoak hondarra du hondoan, eta ezkerrekoak, berriz, haitza. Batzuetan inguru horretara ere jotzen dugu. Txibiak beti ez du haitzean egon nahi izaten, hondarrean egoten da. Probatzen joaten zara. Haitzaelan ere bai, haitza eta hondarra topatzen diren lekuan. Baina mapa horretan informazio asko dago interpretatzen dakienarentzat. Informazio gehiagi.

...

Guk dakizkigun lekuak hor bistan ageri direlako orain. Gaur egun batzuek aparatu bereziak dituzte, zunda eta sonarra batera: nabigatu ahala itsas hondoaren mapa osatzen joaten zaie, informazio guztia gorde egiten du hurrengorako. Aztik egin duen gauza berbera. Baina bai, mapa honetan ederki ikusten da non dauden koska handiak, haitzak... ■

“Ezjakinak baino ez du zalantzan jartzen Motxokoen bertsioa”



Baratzazaraurrean dagoen brandaka luzea kontuan hartuta, Larrañagak garbi du *Motxo* arrantza ontzia ez zegoela arrantzan sareak botata. “Zerkoko arrantza ontziak 35 metroko sakoneraraino hurbil daitezke. Barrurago ezin dute bota sareak, haitzean kateatzen delako. Sare horrek gutxieneko sakonera bat behar du poltsa ondo zabaltzeko. Bestela, kateatu egiten da. Sare horrek 60.000 euro balio du. Eroenak ere ez luke hor botako”. Eta gehiago dio: “Argazkietan ikusten da garbi, sareak bota eta jasotzeko erabiltzen den soka bilduta dagoela. Nola bota dute sareak?”.

Bere iritziz, Debako bokalean ezer aurkitu ez eta Zumaiara bidean zetozela izan zuten istripua. “Oso bazterretik sartuko ziren konturatu gabe, ur mehetik, eta hondoa jo zuten. Besterik ez. Hor ez dago aparejoa botatzerik. Nahi eta ere, ezin. Are gehiago: bi sareak zeuden erorita. Olatuek bata bestearen atzetik eramango zituzten. Esplika dezala norbaitek zerkoko ontzi batek bi sare aldi berean nola bota dituen. Ez dago munduan. Ezjakinak baino ez du zalantzan jartzen beraien bertsioa. Gogorrena da ez dakienak ziurtatzea haiek han arrantzan zebiltzala. Sakonera horretan ezin da sareak bota. Nabigatu bai, eta akaso hor deskuidatu ziren”.



Maluta
jatetxea • taberna

oilasko erreak • kasuclitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak
hanbursesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



Maxi
solarium
ileapaindegia
estetika

etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 lasonet.com/maxi



MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 537 901

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Alta Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza



ETXEGINTZA
OLIDEN
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak:
FATXADAK ETA TEILATUAK
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

636 867 812 (Zumaia)
609 834 438 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com



OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranitz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbi@kirolak.euskalnet.net



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Korta Industrigunea, A1 - 4, pat. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beobide Ibiltoa, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girotzea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



La Prima Vera
pizzeria

Alta Mari, 17, behea
tel. 943 247 011



MARIA ZUBIMENDI

Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketako txapelduna senior mailan

ZERUKO HAUSPOA

TESTUA: IMANOL SESMA
ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

ELKARRIZKETA

Batxilergoan, zaletasunetan eta lagunekin kalera irtetea bezalako kontuetan pentsatzen dabil Maria. Eskolarteko futbol partida jolastetik irribarrez dator kigu Amaia. “Hiru gol sartu ditut-eta!”. Zumaian bizi diren 16 eta 11 urteko nesken ganarruntak behar luketen gauzak, ezta? Bada, ordea, bi ahizpa hauek berezi egiten dituen zerbait: eskusoinuarekin erakusten ari diren maila. Hala erakutsi zuten Hauspoz, Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak, Arrasaten antolatutako XXXI. Gipuzkoako Lehiaketan; biharko (otsailak 5) Hernaniko kontzertuaren atarian etxean elkarrizketatu ditugunean ere bai.

Gipuzkoako Txapelketan senior mailan (18 urtetik gorakoenean) garaile izan zinen 16 urte bete gabe.

Haurren mailan irabazi nuen behin, eta behin irabaziz gero, ezin da maila berean aurkeztu. Ondoren, duela hiru urte, junior mailan aurkeztu nintzen eta espero ez genuen arren, lehenengo postua lortu nuen. Beraz, maila honetan bakarrik harnezakeen parte. Pare bat urtez aurkeztu gabe egon nintzen; Miren irakasleak animatu eta “Orain bai!” esan genuen arte. Egia esan, ez genuen emaitza hau espero...



“TALENTUAREKIN BAKARRIK EZIN DA MUGA NATURALETIK HARAGO JOAN”

MIREN IÑARGA

Akordeoilaria eta ahizpen irakaslea

Maria eta Amaia akordeoi irakaslearen ustez, eskolaz kanpoko jardura hau aurrera arrakastaz eramateko aldagai askok izan dute eragina: “Talentu handiko neskek dira, familia oso diziplinatua dute eta etxean beti babesa eskaini diete”. Bere lanari buruz ere hitz egin digu: “Gero eta erronka handiagoak jartzen joan gara, lanerako metodoei gida lerroak jartzen dizkiegu eta erantzunaren zain egoten gara”. Bi ahizpek prozesu honen funtzionamendua barneratuta dutela eta erritmoa beraiek aukeratzen dutela ere esan digu bi giltzari azpimarratzearekin batera: “Konstanteak eta saiatuak dira”.

Mirenen hitzetan talentua ere kontuan hartzeko aldagaia da, baina honekin bakarrik “ezin da muga naturaletik harago” joan; eta bi ahizpei dagokienez, arrakastarako baldintza guztiak betetzen ziren: “Inoiz ez da jakiten, baina espero nuen”.

Amaia eta Maria akordeoia jotzen 6 eta 7 urterekin hasi ziren, hurrenez hurren. Oso adin ona da irakaslearen ustez, garai horietan “oso harberak” baitira haurrak. Orditik hona gero eta gehiago ezagutu dituen neskek deskribatzerakoan laudoriotan urtzen

da, daukaten adinerako “psikologikoki oso helduak, langileak eta argiak” direla eta “oparitzeko adina energia” dutela esatean. Garbi dio amaitzeko: “Edozertan delarik ere, nahi duten lekuraino iritsiko dira”.

Soinua, trikitixatik harago

Akordeoia entzutera oraindik gerturatu ez direnei orain artean ezagunena akordeoi herrikoia den arren, aspaldi jotzen den beste alderdi bat ere badela esango liekeela aitortzen du; bakarka, ganberan edo orkestran musika jasoan sartzen dena. “Akordeoia lehen aldiz entzuten duen musikari oro modu positiboan harrিতта gertatzen da eta gorantz doa konpositore eta musikari kopurua”, gaineratu du. Trikitixa eta bestelako soinuaren arteko erlazioa aztertzerakoan, soinuak era folklorikoan ibilbide handia duen arren, bestea ere erraz sartzen dela dio. Mirenen hitzetan, “akordeoi diatonikoa gurearen familiako instrumentua da, eta gureari ez dio ez modu positiboan eta ezta negatiboan ere eragiten”. Era simple batean azaldu digu amaitzeko: “Errepertorio eta esparru jakin bat ditu trikitixak, eta guk beste bat”.

Zergatik da garrantzitsua Arrasateko Akordeoi Lehiaketa?

Hiru azpilehiaketa ditu. Garrantzitsuena Txina, Errusia, Eslovenia eta beste hainbat herrialdetako partaideak biltzen dituen Arrasate Hiria da; nazioartean hiru nagusienetakoa.

Guk parte Gipuzkoako XXXI. Akordeoi Lehiaketan hartu genuen parte, nahiz eta Europa mailakoa izan. Euskal Herria edo Espainiak edozein eskolako ikasleek har dezakete parte eta, noski, edonongo jendeak ikas dezake eskola horietan. Gure kategorian, adibidez, serbiar bat eta galiziar bat bazeuden.

Nolatan hasi zinen akordeoia jotzen?

Txikitatik gustatu zait musika, eta lau urterekin jostailuzko bat oparitu zidaten. Harekin hasi eta orain arte! Beste instrumentu batzuk probatu nituen, baina honekin geratu nintzen.

Zazpi urterekin hasi eta bederatzirekin Irunen ikasten zenuen ordurako. Nolatan hain garbi akordeoilari bo-kazioarena?

Zumaiako musika eskolako tailerlean hasi nintzen 5 urterekin, eta bertako Sofia Oriak honetan aurrera egiteko ahalmena nuela eta Irungo eskola batean Miren Iñargarekin ikas nezakeela esan zigun; alde handia zegoela hemen edo han ikas nezakeenaren artean. Oso gaztea nintzen eta errespetua ematen zigun adin horretan kanpora joaten hasteak; baina aurrera egin genuen eta ez gara damutzen. Orduan, Miren berak elkarrizketatu ninduen maila ezagutzeko, eta irakasteko prest zegoela esan zigun. Orditik, ezer berezirik ez bada, astean behin joaten naiz Irunera ikastera eta gero etxean jarraitzen dut nire kabuz entsetzen.

Asko entseatuko duzu...

Batxilergoan nabil eta ahal dudana egiten dut. Lehiaketa garaian gehiago jotzen saiatzen naiz, eta orduan asteburuetan eguneko bost ordu eta astegunetan ordu eta erdi ateratzen ditut horretarako. Hala ere, ez naiz *freaky* bat. Bizitza soziala oso garrantzitsua da niretzat.

Eta ikasketak?

Ondo daramatzat. Donostiako Kontserbatorioan batxilergo musikala egin nezakeen, baina nik bestelakoa aukeratu nuen. Ez nion aterik itxi nahi beste guztiari. Egunen batean bide bakar horretan

tik joan nahi izango ez banu, zer egin ahal izango nuke, bestela? Ezer ez.

Denbora ondo antolatu beharko duzu, ezta?

Zati bat egin, gero lagunekin irten, gero... Udan, lehiaketetarako prestaketetan, kalera noiz irten pentsatu behar izaten dut: goizez edo arratsalde; batean irten eta bestean ikasi. Antolatu beharra dago.

Beste zaletasunik bai?

Badituz batzuk, baina denbora da arazoa. Aukeratu egin behar.

“Jotzeko dei bat jasotzea baino errazagoa da txapelketara zu zeu joatea”

Deigarria egin zitzaidan Arrasateko sari nagusien zati bat bi kontzertu jotzeko aukera izatea.

Zaila da kontzertu bat emateko deitzea; batez ere bakarka jotzeko. Baliteke orkestra baten proiektu batengatik deitzea, baina gertatu zaidan arren, zaila dela aitortzen dut; ez da oso ohikoa zuzendariak solista moduan akordeoi bat nahi izatea. Dei bat jasotzea baino errazagoa da txapelketa batera zu zeu joatea.

Gainontzekoan, orain ari gara ezagutzera ematen. Gurea ez da rock musika bezain ezaguna.

Beraz, nolako garrantzia dute zuretzat lehiaketek?

Formakuntzarekin zerikusia duen zerbaitez bezala ikusten ditut. Ikasteko prozesuan ez zara horri begira prestatzen baina lehiaketa batera joatean inplikazioa handiagoa da. Helmuga duzu, eta gehiago eskatzen diozu zeure buruari. Bitartean, eskenatorkira ohitzen eta esperientzia hartzen joaten gara.

Berrik ikusita, jende asko mugitzen al da akordeoiaren inguruan?

Txapelketen inguruan, adibidez, Euskal Herrian ez dago parte hartzeko ohitura handiegirik. Gehiena Europan mugitzen da: Finlandia, Alemania... Nire adinean, adibidez, zaila da Estatu espainiarrean akordeoiarekin lehiatzen den norbait topatzea, baina Europa mailan asko aurki daitezke; serio hartzen dute kontu hau.

Adibidez, Hungaria bezalako herrialdeetan errendimendu handiko eskolak dituzte. Hamabi urterekin etxetik joaten dira, unibertsitatean egongo balira bezala egun guztia akordeoiaren inguruan emateko. Horrelakoetan “Ostras!”, esaten dut; hemendik irten eta hori ikusita... Kultura

AMAIA ZUBIMENDI

Haurren mailako Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketako txapelduna

AHIZPA NAGUSIAREN DOINUEK PIZTUTAKO KOHETEA



Mariak egiten zuena gustatu eta 6 urterekin hasi zen akordeoia jotzen. Oso gaztea zen arren, zuzenean ahizparekin batera astean behin Irun aldera joaten hasi zen, baina “ordubeteko saio ederra egiteko joatea merezi du” bere ustez, eta bidea ez zaio astuna egiten.

Hango ikasketez gain, etxean 45 minutuko saioak egiten omen ditu ia egunero pistatxo koloreko bere aulkixoan eseri eta akordeoia ia gorputz osoarekin helduta joz, eta esker onez aitortzen du: “Bizilagunek ere nahikoa egiten dute!”. Bere eginahalak hasi dira dagoeneko fruitua ematen, eta ez nolana hikoak, gainera. Arrasateko Gipuzkoako Lehiaketara lehen aldiz aurkeztu eta haurren mailako txapeldun izan zen 25 puntutik 25 lortuta; sekula gertatu ez zena: “Aurrez lan ederra egin nuen, konfiantza neukan, eta, egia esan, txapelketan jo ondoren gustura nengoen. Hala ere, ez dakit nire inoizko saiorik onena izan ote zen; emaitza hori ez nuen espero, behintzat”.

Urruti dago etorkizuna

Hil honetan beteko ditu Amaiak 12 urte; “handia” denean zer egin nahi duen erabakitze goizegi da, beraz. Akordeoiaz gain, beste hainbat zaletasun ere baditu, baina kontzientzia da datorren urtetik aurrera pixkanaka zerbaitez aukeratzeko hasi beharko duela.

Urrutiago begiratu gero, ordea, zaletasun bezala ikusten du musikarena; “ez karrera bezala”. Profesional aritzeko, berriz, Arkitekturari itxura ona hartzen dio: “Oso gaztea naiz jakiteko baina dezente marrazten dut, sarri erreparatzen diet etxeei... Erlaxatu egiten nau marrazteak”.

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353

RUBIO Pinturak

PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERAK,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788
Erribera 1 behea

Talaja
taberna-jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

TALAI-PE
jatetxea-erretegia



Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

Tapaia
Jatetxea



Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

Txingurri
Loradenda



Loradenda Lorazaintza
erribera, 1 tel. 943 860 778
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak

Urola 2000, s.l.
Aroztegia

*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
*Baserrien zaharberritzen
*Enbarkazio konponketa
*Ate, zokalo, tarima eta pertsiolak
*Armarri enpotraturua aurrealdea
*Aroztegi metalikoa

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323

Xanti
Osa
Arantxa Azkue



Altzariak S.L.

Amaiako plaza, 13
tel. 943 860 914
657 794 153
Denda: tel./faxa 943 862 385

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa: Hego kalea, 4-5
Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943883532 Tel.: 943861631

Zalla



• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak

Upph Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

zapateixa
Konponketak



Maitasun Ukanaga

Oinetako eta erropa konponketak
Produktu eta material ekologikoa

Zunbilo kalea 8 • 20750 Zumala • 943 861 252 • 652 727 740

Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia



Alai auzategia, 20750 Zumala tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santiago auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

ZUMAI A
AUTO-ESKOLA



• Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
• Praktika eta azterketak Azpeltian
• GURE HELBURUA:
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIA

Zumaia optika



Txomin Agirre kalea, 6 tel./faxa: 943 143 057

Ikastegi homologatua

Golden Gate
Institute
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net

UZKUDUN
taberna-jatetxea



Gosariak-Pintxoak-Kaxuelitak-Egumeko menua-Astobaruko menua-Meriendak-Plater konbinatuak-Errozioak-Afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 Tel. 943 865 349

TXALAPARTA
OPARIAK

Angelo Sorza, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
faxa. 943 430 637



“Trikitixa ez,
nik eskusoinua
jotzen dut”

desberdina dute: gauza bera modu desberdinean ikusten dira hemen eta han.

Errendimendu handiko eskolak han... Eta musika orokorrean hartuta, hemen zer?

Aniztasun, antolatzeke gaitasun, zalego eta kontzertu kopuru aldetik eta abar uste dut Euskal Herria egoera onean dagoela, eta herri batzuetan gauza ugari egiten da. Alde horretatik, oso ondo gaude; azken batean, musikagatik zenbat eta gehiago egin hobe baita.

Instrumentu bakoitzari jendeak ematen diona aztertzen hasiz gero, ordea, hemen ez dago musikari lotzen zaion gazte kopuru handirik. Europa mailan jendea askoz inplikatuagoa ikusten da eta maila hobea lortzen dute.

Etorkizunean musikarekin jarraitzeko asmoa al duzu?

Oraingo horrela jarraitzeko asmoa dut, eta gero Donostian horretara bideratutako karrera bat egiten ikusten dut neure burua. Gero ikusiko dugu nola doazen gauzak.

Zer nolako proiektutan murgilduko zinateke?

Ganberako orkestra batean, adibidez, beste musikariaren babesean jotzen. Baita mundu osoko musikariak biltzen dituen Arrasate Hirian. Bakarlarri izan nahi duten musikariaren erreferentziatzeko lehiaketa da. Urte batzuk barru, nire helmuga hor egongo litzateke. Oso programa gogorak dira bertakoak eta oso gauza handia da. Irabazleak mundu guztian zehar ur-

tebetez egiteko bira moduko bat irabazten du. Munduan zehar akordeoiarekin. Oso polita izango litzateke.

Bestelako musika talderen batek eskainiz gero giro desberdinetara salto egingo al zenuke?

Oraingo ez diot hori neure buruari planteatu ere egin, baina ez diot nahi aterik itxi etorkizunean gauza desberdinak egiteari. Gaur egun klasikoa, garaikidea edo dena delakoa jotzeak ez du esan nahi etorkizunean besterik probatuko ez dudarik. Orain formakuntza jasotzen ari naiz eta horretarako behar dudana badakit ez dudala ari naizen honetan jasoko. Agian gero baliteke zerbaitek bultzatuta horrantz joatea...

Amaitzen joateko, ea argitzen diguzun: soinua, eskusoinua, akordeoia... Batetik bestera alderik bada?

Dena bat da izatez, eta euskaldunok eskusoinua deitzen diogu. Guk erdaratik hartutako *akordeoi* hitza erabiltzen dugu, bestela beti trikitixarekin nahasten baita.

Zer esango zenieke zuen musika trikitixarekin nahasten dutenei?

Ez du batak bestearekin zerikusirik, eta ez zait asko gustatzen. Garbi uzteko ibili izan dudana esaldi bat: “Trikitixa? Ez. Nik eskusoinua jotzen dut”.

Eta beste musika estiloekin nahastuz trikitixa jotzen duten soinu-joleei?

Gustatzen zait instrumentu berarekin jendeak gauza desberdinak egitea. Gero beste kontu bat da estilo bat bestearekin nahastea... ■

LOURDES ETA JOSE MANUEL

Gurasoak

“ALABEI HORI GUZTIA
GUK ESKATUZ GERO,
EZ LUKETE EGINGO;
BERAIEK ERABAKITZEN
DUTE”

Batez beste egunean bi orduz entzuten dituzte etxean akordeoia jotzen, eta jotzen ez dutenean falta sumatzen omen dute: “Lehiaketa edo kontzertuetara joaten garenean ere ez gara erlojuari begira egoten. Zenbat eta gehiago entzun, orduan eta gustagarriagoa da”.

Alabengan duten konfiantza dela eta beraien izten diete beraien bidea egiten; azken batean, diotenez, alabei hori guztia eskatuz gero ez bailukete egingo: “Beraiek erabakitzen dute”. Hala ere, guraso moduan “dakiten heinean exijitzen joan eta heldu bezala distantziak markatu” omen dizkiete. Ez dute lan handiegirik; Lourdes eta Jose Manuelen hitzetan, konpromisoa hartuz gero beren kasa egiten baitute egin beharrekoa eta eskolari, lanari, lagunei eta bestelakoei behar adinako denbora eskaintzeko eurak antolatzen baitira: “Beti jakin izan dute zer egiteko gai diren, zer egin dezaketen laguntzarekin eta zer laguntzarik gabe, aukeratzeko eta lehentasuna finkatzeko gai izan dira... Eta berdin gertatzen da ikasketekin”.

Lan handi baten ondorioak

Gurasoen oso gustura daude, alabak diziplina, ardura eta egiten ari diren esfortzuarekin heldutasun sendoa lortzen ari direla uste dutelako; eta alde horretatik, “oso ondo” baloratzen dute Mirenek pertsona eta akordeoilari gisa “erlazio eta balioen inguruan” irakatsi diena.

Hala ere, kezka batzuk badituztela aitortu dute: “Gehiegizkoa izango ote da? Posible ote da ikasketekin ongi uztartzea? Aspertu eta ez al dute guztia utziko?”.

Kontuak kontu, etorkizunean Mariak musikaren inguruko karrera bat egiten ikusten du bere burua, eta “errealitatea batzuetan zaila dela badaki”, gurasoen ustez. Beren aldetik indar guztia ematen omen diote: “Gustatzen zaiona egin dezala, saiaturia izaten jarrai dezala eta bideak erakutsiko dio zein aukera dituen”.

• Eskola publikoa eta euskalduna



• Talde txikiak: elkarreragina eta kooperazioa era naturalean

• Adin aniztasuna geletan

• Irakasle eta gurasoen arteko harreman estua ...

Arroako herri eskola

Auzoan hazi eta hezi

OSO LASAI ETA EUSKARAZ BLAI
Matrikula zaitetz!
urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra



Tel./Fax-a 943 14 70 44
E-mail: 012038aa@hezkuntza.net

XXVII. ZUMAIA

Herri Lasterketa 10.200m

Otsailak 26

2011

Helduak 17:00 Haurrak 16:00



zumaia.net
kirolprobak.com

ANTOLATZAILEAK

FEDERACION
ATLETICA
GUIPUZCOANA



Foru aldundia



GIPUZKOAKO
ATLETISMO
FEDERAKUNTZA



EL DIARIO VASCO



Zumalako Udala
BABESLEA

OTSAILA-MARTXOA

IKASTAROAK

DANTZA/MUGIMENDU TERAPIA
ETA DANTZA SORTZAILEA
(EMAKUMEEI ZUZENDUTA).
Otsailaren 7an hasita, 15:00etatik
16:30era. Izen ematea Berdintasun
Sailean (943861056).

GURASO ESKOLA: Otsailaren
3an hasita 7 ostegunetan, 6-12
urteko haurren gurasoentzat.
Izen ematea ludotekan.

KZ GUNEA: Internet eta
E-Administrazioa, IT txartela,
eta bi orduko mintegiak
(Jaycut, Youtube, Skype...)

DEIALDIK

ZUMAIAKO OUTLET

AZOKA: otsailaren 12 eta
13an Kantauri plazan.

SAN TELMOAK antolatzeko
deialdia: otsailaren 18a, ostirala,
19:00etan udaletxean.

ZUHAITZ EGUNA:
martxoaren 12an



MENDI ASTEA 2011: Martxoaren
2etik 24era, Foronda kultur etxean,
mendiko ikus-entzunezkoak

LEHIAKETAK

INAUTERITAKO KARTEL

LEHIAKETA: epea, otsailaren
18a. Oinarriak kultur etxean.
foronda@zumaia.net

EMAKUME EGUNEKO KARTEL

LEHIAKETA: epea, otsailaren 9a.
Oinarriak:
berdintasun@zumaia.net

OTSAILA

Ostirala, 4

18:00etan hasita, Beheko Plaza
Abesbatzarekin SANTA AGEDA
BEZPERA kantu-kalejira.

Astearte, 8

18:00etan Forondan, hitzaldia: "Sare
sozialak: aukerak eta arriskiak"

Osteguna, 10

21:45ean zine forum "Mi Refugio"

Ostirala, 11

22:00etan Aita Marin, antzerkia
"CLUB DE LAS MUJERES
INVISIBLES"

Igandea, 13

12:30ean komentuan, Udal Musika
Bandaren Kontzertu Didaktikoa.

Osteguna, 17

19:30ean Forondan, liburuaren
aurkezpena: "DENONTZAKO
MAKROBIOTIKA"



Igandea, 20

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia
"IPUINAREN BILA"

Osteguna, 24

19:00etan Foronda kultur etxean,
"Documentación Medieval del
Archivo Municipal de Zumaia
(1256-1520)" argitalpenaren
aurkezpena

21:45ean zine forum "Villa Amalia"

Larunbata, 26

9:30ean, Zumaia III. Txirindulari
saria.

11:30ean, Neguko piraguismoko
Gipuzkoako Txapelketa.

16:00etan Zumaia XXVII. Herri
Lasterketa. Haurrak 16:00etan eta
nagusiak 17:00etan.

Igandea, 27

Familia irteera Ordiziako "Delikatuz"
zentrorra.

MARTXOA

Martxoaren 4an hasita:

INAUTERIAK.



Ostirala, 4

Eguedian, Beheko Plaza
Abesbatzaren kalejira mozorrotua.
Arratsaldez herriko lkastebxeekin
kalejira.

17:00etan Ludotekan inauteri festa.
Ordu berean, Gaztegunean mozorro
festa.

19:30ean Musika eskolarekin
INAUTERI JAIALDIA.

22:00etan, antzerkia: "BAGINAREN
BAKARRIZKETAK"

Larunbata, 5:

12:00etan Musika Bandarekin Inauteri
jaialdia.

18:30ean diskoteka eta mozorro
desfile eta lehiaketak

22:30ean DISKOTEKA

Astelehena, 7

15:00etan eta 17:00etan Pirritx eta
Porrotxen Inauteritako saioa: "ongi
etorri PUPU ETA LORE"

18:00etan Ludotekan, Inauteri festa.

Astearte, 8

EMAKUMEAREN NAZIO ARTEKO
EGUNA

Iluntzean Aita Marin "Nagore" filma.

Osteguna, 10

21:45ean zine forum "MADRES E
HIJAS"

Ostirala, 11

22:00etan, Aita Marin, MIREN
kontzertuan: "Laztanten nauen
eskua"

Astelehena, 21

19:30ean Mendi Astearen zikloaren
hasiera.

Osteguna, 24

21:45ean zine forum
"GAINSBORG"



Osteguna, 31

19:00etan Forondan, NABARRALDE
elkartearen esku, "Gipuzkoaren
jatorria" dvd-aren aurkezpena.

GAZTEGUNE - KANTURI 13

OTSAILA

Asteazkena, 2

17:00etan PLAY STATION
TOPAKETA

9, 11 eta 28an

17:00etan SUKALDARITZA
TAILERRA

Asteazkena, 16

17:00etan MASKARA TAILERRA

Asteazkena, 23

18:00etan ZINEA: "MATRIX
RELOADED"

Ostirala, 25

17:00etan ZINEA

MARTXOA

2, 9 eta 18an

18:30ean SUKALDARITZA
TAILERRA

Ostirala, 4

17:00etan MOZORRO FESTA
GAZTEGUNEAN!

Ostirala, 25 eta Astelehena, 28

17:00etan ZINEA

Argitalpen honen edizioako laguntzaile:



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA) diruz lagundutakoa**



Zumaia Udala



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



NEGAR

Aitak ez zidan negar egiten irakatsi.

Beste gauza asko irakatsi zizkidan, gauza txikiak eta gauza handiak. Gauza garrantzitsuak eta baita hainbeste inporta ez zirenak ere.

Baina negar egiten ez.

Amua lotzeko behar den korapiloa bezalako gauza sinplea irakatsi zidan, baina baita pertsona izateak daraman konplexutasuna ere. Ideia txiki baino

garrantzitsuak barneratu nituen berari esker: ingurumena maitatzea, liburuak gozatzea, bizitzan uneoro adi egotea. Sentimendu handi eta sakonak transmititu zizkidan egunero: konpromisoa, errespetua, askatasunaren garrantzia eta inplikazioa bezalakoak.

Gauza asko irakatsi zizkidan aitak, baina negar egiten ez.

Hori bizitzak irakatsi dit.



OIKIAKO HERRI ESKOLA

2tik 12 urte arte
anizan ikasteko aukera



- Talde txikiak (banakako heziketa)
- Ingelera 4 urtetik aurrera
- Bertsolaritza Proiektua
- Teknologia berreen erabilera: ESKOLA 2.0
Bloga: <http://oikiakoeskola.blogspot.com>
- Psikomotrizitate gela
- Ingelera, Heziketa Fisikoa, Musika eta Heziketa Bereziko irakaslego espezializatua.
- Jangela zerbitzua



AURREMATRIKULA EPEA:
urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra

Tel-faxa: 943 862 046 E-mail: 012299aa@hezkuntza.net

MATRIKULA EPEA:
Urtarrilak 31tik Otsailak 11ra

PLAZO DE MATRICULA:
Del 31 de Enero al 11 de Febrero

ESKAINZA

0 urtetik 16 urtera D ereduan
0-2 urteko haurren geletan
ordutegi malgua

Zatoz gurekin!



Ikastetxe euskaldun itundua eta edonorentzat irekia

KALITATE OSOA HEZKUNTZAN



Axular ibiltokia 6, 20750 ZUMAIA Tel. 943 86 04 62 e-posta: mariatajose@vedruna.org
www.mariatajose.com





ZUMAIAKO HERRI ESKOLA

**ZUMAIAKO
INSTITUTUA**



KALITATEA
HEZKUNTZAN

MATRIKULA IREKIA

urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra

- ✓ **Haur Hezkuntza**
- ✓ **Lehen Hezkuntza**
- 2 urtetik 12 urte arte**

ZUMAIAKO HERRI ESKOLA

Aita Mari, 44,
Sagarbidea, 1
tel. 943 861 037; faxa: 943 862 501
e-posta: 012972aa@hezkuntza.net

- ✓ **Derrigorrezko
Bigarren Hezkuntza**
- ✓ **Z.I.G. / A.A.T.**
(Zereginen Ikaskuntzen gela)

- ✓ **Batxilergoak**
 - Giza eta Gizarte Zientziak
 - Zientzia eta Teknologia

- ✓ **Heziketa Zikloak**
 - Administrarritza eta Finantzak
(Goi Mailakoa)

INSTALAZIOAK:

- Psikomotrizitate gela
- Liburutegiak
- Laborategiak
- Irratia
- Informatika Gelak
- Teknologia tailerrak
- Gimnasioa / Frontoia
- Elbarrituentzat egokitua

ZERBITZUAK - EKINTZAK:

- Jantokia
- Garraioa
- HOBETUZ ikastaroak
- Leonardo / Erasmus

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK:

- Kirola
- Mekanografia
- Aldizkaria
- PROA (Errefortzu programa arratsalde)

ZUMAIAKO INSTITUTUA

Aita Mari auzoa, 45
Sagarbidea, 1
tel. 943 860 809 / 943 862 320
faxes: 943 860 810
e-posta: zuminst@euskalnet.net

